

## MILAFRANGA: *DUZÜIK* ADIZKI BITXIAREN IRAUPENA ETA *IZAN = UKAN* IRAGANGAITZEAN

Koldo ARTOLA

Duela hamabi bat urte, Pedro de Yrizar (g. b.) ikertzaile azkoitiarrari lagundu nahiz, Lapurdiko Milafrangan aditzari buruzko inkesta bat betetzen ari nintzela, *duzüik* adizki bitxiarekin topo egin nueneko lekukotasunaren berri ematera nator. Delako inkesta Yrizarrek bere *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* izenburuko lanean argitara eman zuen, euskalki honen baitan sailkatu baitzuen Louis-Lucien Bonaparte printzeak, besteak beste, Errobi ibaiaren sailhetsean kokatzen diren herrietako mintzamoldea.

Aurrekari modura, zilegi bekit 1993ko uztailean Yrizarri bidali nion adizki horri buruzko txosten txikia hona ekartzea, txostena, hain zuzen, Yrizarren lanak oinarri zuen ohiko esparrutik kanpoko gauza nimiñoa izatean, argitaratu gabe geratu zenez. Honela idatzi nion orduan Yrizar maisu handi, langile nekagaitz –bere adinean!– eta adiskide bihotzekoari:

duela zenbait hilabete bidali zenidan Bonaparte printzearen *Le verbe basque en tableaux* izeneko lanean irakur daitekeenez, iragan mendean –hark bere bilketak egin zituen denboran, alegia– Milafrangako Argintz-Karrika auzoan *duzüik* gisako adizki bitxia erabili ohi zen.

Aurrera egin baino lehenago, baina, eta horri berorri buruz Bonapartek idatzi zuen ohar luzea ere hona ekarri aurretik, ‘nor-nork’ saileko orainaldiko ‘zuek hura’ adizkiak –duzüi, hain zuzen– ari naizela esan beharrean nago. Errobi ibaiak zeharkatzen dituen Itsasutik Milafrangarainoko herri guztietan edo ia guztietan erabilia, orainaldiko emaitzak, zuketan eta singularrean, dut, duzu, du, dugu, duzüi eta dute direla. Iraganaldian, eta hau gehigarri gisa diot, emaitzak honakoak izan ohi dira: nüin, zintüin, züin, ginüin, zinuten eta zuten.

Hona, beraz, eskuartean darabildan gaiarekin zerikusi zuzena izanik, arestian aipatu Bonaparteren lanean (*Observations*, XX. or.) irakur daitekeena:

Nous n'avons trouvé de terminatifs en *züik* que dans cette partie de la commune de Villefranque connue sous le nom d'Argintz-Carrica. A Villefranque même, ainsi que dans les huit autres communes où l'on fait usage de la variété d'Ustarits, la principale du sous-dialecte bas-navarrais occidental du Labourd, on dit *duzüüi*, et non pas *duzüük*. Ce dernier terminatif est donc une exception toute locale et des plus curieuses<sup>1</sup>.

Oharra hein batean laburtu dut, Bonapartek, horren haritik, luzeska teorizatu baitzuen, gaiari honako amaiera emanez:

Quant à *duzüük*, ceux qui pourraient être tentés de voir dans ce cas exceptionnel quelque chose de contraire à ce que nous venons de dire, n'aurons qu'à réfléchir: 1°. que l'apparition de *züik*, quoique ayant plusieurs siècles de date, est indubitablement postérieure à l'époque de la manifestation verbale dans le terminatif, puisqu'on n'a commencé à se servir de ce pronom pluriel que lorsque *zu* a été adopté d'une manière exclusive pour le singulier respectueux; 2°. que *züik*, représentant tout aussi bien le sujet qui régit l'intransitif que celui qui régit le transitif, il n'y a rien qui prouve que ce soit ce dernier plutôt que le premier qui se trouve en *duzüük*: *züik züzte*, *züik duzüük* 'vous êtes, vous l'avez'. Si le fait qui a lieu avec *züik* avait lieu avec *zu* et *gu*, pronoms qui font une différence entre le sujet actif et celui qui n'est pas tel; si à Arguintz-Carrica enfin, on se servait de *duzük* comme on se sert de *duzüük*, c'est alors que nos idées sur l'époque de la manifestation du verbe se trouveraient en défaut, mais à Arguintz-Carrica, quoiqu'on se serve de *duzüük* au pluriel, on se gardera bien, comme partout ailleurs, de se servir de *duzük* au singulier ou de *duük*, les terminatifs de cette localité étant: *duzu*, *duu* 'tu l'as, nous l'avons', et *duzüük* 'vous l'avez'.

Honenbestez, Yrizarri bidali gutunari jarraipena damaiot, zeinean adizki horren balizko arrasto bila eginiko saioaren berri ematen den.

Hori horrela, eta gure egunotan ere delako erak bizirik ote dirauen jakin nahiz, handik egun gutxira auzo horretara joan eta bertako hiru etxe euskaldunetan harako galdera egin nuen ezezko borobila jasoz, ez omen dutelako inoiz horrelakorik aditu. Diodan, bide batez, Argin-Karrika dela gaur egun han erabiltzen duten izena nahiz, galdetuz gero, Argintz-Karrika ere bai, aditu egin dutela dioten.

<sup>1</sup> Bonaparteren oharraren honainoko zatia erabili zuen Yrizarrek bere *Morfología...*-n (381 or.).

Alabaina, handik hilabete pare batera edo, artean ezagun berri xamarra nuen Jean Kopentipi Haranbure<sup>2</sup> jaunak bila genbiltzan adizkiarekiko berri zuzena eman zidan, nahiz berak *duzüik* hori Argintz-Karrikan ez baina, Behere-Kartierean (frantsesez Quartier-bas) kokatu zuen<sup>3</sup>. Hona, beraz, bien arteko solasaldia nolatan zertu zen:

Aurrera egin aurretik, baina, eta laburki bada ere, datuak transkribitzean erabili dudan zenbait zeinurekiko ohar batzuk egin beharrean naiz:

1. Ia aditzen ez diren hizkiak parentesi artean idatzi ditut.
2. Bokal batzuk, *e* eta *o* zehazki, batzuetan itxi egiten dira *i* eta *u* bezalakoetara hurbilduz. Halakoak *ë* eta *ö* idatzi ditut hurrenez hurren, egitate horien berri nolabait islatzeko.
3. Bi eratako tildeak erabili ditut: indar edo intentsitate handiko azentua aditzera emateko (´), bat, eta hori baino txikiagokoa (˘), bestea.)

Hona, orain bai, Kopentipi lagunak eta biok izan genuen elkarrizketa:

- Joan den mendeko lan batean erraten denez, denbora hartan, Milafrangako Argintz-Karrika auzoan, *züik jan*<sup>4</sup> *duzüi* errateko partez, *züik jan duzüik* erraten zuten...
- Ah, bai, ói... Beréko Kartiéren berriz: *züik... züik!*
- *Züik*, bai, *züik* (= ‘zuek’); baina *jan düzüi* erran orde, *jan düzüik*.
- Bai, Behéreko Kartiérëan.
- Egun batez, hona jin aitzin, Argintz-Karrika horretan izan nintzen, baina hango jendeak ez du aditu. Saussie jaunari ere galdegin diot [gizon hau *Eiberattoa* deritzan Jeanen etxetik Hiribururanzko bidean bizi den laboraria da, baina Argintz-Karrikan sortua] eta berak ere: “guk *jan düzüi* erraten dugu; *duzüik* ez.”

<sup>2</sup> Elkarrizketa hau berriemailea sortu Milafrangako *Eiberattoa* bere etxean, 1993-07-03an, izan genuen, Kopentipi jauna 73 urtetan zela. Haren aita ere etxe berean zen sortua; ama, berriz, Arrangoitzen.

<sup>3</sup> Yrizarrek, aipatu *Morfología...*-n (381 or.), Bonaparteren *Manuscrito 51*etik harturiko ohar bat dakar, honela dioena: “*duzüik* – med. XIX: Q.-bas (Villefranche) (Bon-51: ‘*duzüik* au quartier bas seulement’, dice Bonaparte, y en otro lugar de este manuscrito: ‘Milafrangako behereko kuartiera: *duzüik* = vous l’avez’). Kontraesana agerikoa da Bonapartek emaniko informazio hauetan, aurreneko oharrean era hau Argintz-Karrikan erabiltzen zela idatzia baitzuen.

<sup>4</sup> Ahoskatu, ‘yan’ ahoskatu ohi da Iparralde osoan, Zuberoan ezik.

- *Jan duziük*, Beré-Kartiérean.
- Bai? aditu duzu inoiz *duziük* erraten?
- Eh! hémen éz, Behè-Kartiérien! Beréko Kartiérien (h)or... Quartier-bas.
- Han bai?
- Bai; *zeúziük?* *zeúzi* erráteko pása; guk, *zeúzi* errán e... *Zeúziük?* (haiek)
- Bai, e? zuk aditu duzu?
- Ai, bá-bai-bai...
- Alta, orain hilabete batzuk Argintz-Karrikara joan eta han erran zautaten ezetz...
- Izan dút (h)an, han, zéra hilák eta... àuzo hónen e, hilá da oai; hàrreki-láan ta, hàla zíren, hángo zéra... hítzak erràten tzitüín, Beréko Kartiéreko (h)itzak [barrez]. Atèratzen ginüín geo: *záuziük?* (sic)... *èztuziük?*
- Ah, baina erran duzu hura hil zela...
- Ba, bá-bai.
- Baina ez zen Argintz-Karrikoa? Behereko Kartierekoa zen?
- Béreko Kartiérögöa zen. Hemén ebilté zen, áldean, (h)orr etxé (b)ateán. Beré-Kartiéren... sórtuá (sic) ta handík e... jína... handítüia huná(t).
- Zer zuen izen gizon hark?
- Mendíbur(e).
- Eta izen ttipia?
- Adrie(n). Ta... izan dú<sup>5</sup> (h)emen, hori dá aspáldi; izàin (t)zitüín laatóin ta hála güt(t)i-góiti!... laetóin ta... hamórtz úrte eo izáin, izàin tzitüín, bai...
- Orain, orain; bizi izanez gero lauretan hogeita hamabost urte izanen zituen...
- Hamáborz bá; en... quatre-vingt-dix-huit sortüia zen, eta... zerá, arnó-martxánköa iten tzüín, iánde góizetan, aizétse<sup>6</sup> batean, eta... ma(g)ásina

<sup>5</sup> *du* hori ‘du(u)’ = ‘dugu’ da, antza denez.

<sup>6</sup> Azkuek, bere hiztegian, honela dio: **aizetse** (R-is, Sc), casa de la villa, de ayuntamiento: *hôtel de ville, mairie*. (De AIZO-ETXE). Hitzaren hedadura, honenbestez, uste baino zabalagoa da, antza.

- (b)átean, láncean, Bàionán? ta gëó, iànde goizetán? ba, arnó-xági báteta-kó, arnó-martxánt...-zeká, artzén tzén<sup>7</sup>... komànden hártzen, ì(b)iltzé tze(n)... nàhi duzú hunát, e?
- Komandant? [gaizki ulertu-eta, nik]
- Komándak, bai... zérak, nórk nàhi züin árnua! barríkaka saltzén zen órdüian, zién berróita amár pintáko barríkak eta hóla, zéra batzúk, barríkak pinttá batzutan; holàko gauzén iánde góizetan; ta, “Alors, eztúzüik oíno finí arno húa? [barrez], eztúzüik?”
- Ah, interesgarria da hori, e?
- [errepikatuz] “Eztúzüik oíno finí arno (h)úa? ala zeáuzüik? úra eáten?” [barrezka]. Hálantxé!... gáiso gizóna! dénborá pàsa be(h)ár galditzéat (...), àrno-martxánta tze(n). Badít (?) àrno-martxánta erràten gínakon<sup>8</sup>, bai. Ba gizon... gozo át zen. “Alors! éztúzüik oíno finí arno húa? ala úra éateuzüik?”
- Hara, uste nuen hori ez zela jada ezagutzen...
- Ba, oái utziaúte, e? héik e, Bèhe-Kartiére eman, utzia da.
- Ah, ez dute gehiagorik erraten? ez duzu uste?
- Ez, eztúte géhiagoik, éz-ez; léhenó zahárrek, bàldin badiogú zónbet, xahár, bìzi dienák, heék? ba...
- Dena den, nik aditua nuen eta are irakurria ere hori ez zela Behereko Kartierean erabiltzen, Argintz-Karrikan baizik...
- Ez, hòi Beré-Kartiérien pronúntziatzen zuten, Quartier-bas, anótatzen: *duzúik!*
- ‘Zuten’ diozu, ez baituzu uste egungo egunean erabiltzen denik, baina zuk aditu duzu, etsenplu onak eman baitituzu...
- [barrez, onartuz edo] Bá-bai-bai! bai... Bazén or, oái düíla... ezáutu nüín ník e, hiru-làu urtetán híla da; Beré-Kartiérien sortúia zén, ta... hàrrek bazitüín... laètanoi urté inen zitüín áurten.

<sup>7</sup> ‘aritzen, ari izaten zen’, itxuraren arabera.

<sup>8</sup> Milafrangan, Bonaparteren eta Yrizarren beraren arabera, Uztaritzeko barietateari dagozkion beste herri batzuetan bezala, ‘diot’ eta ‘dakot’ buru duten gisako adizkiak adi daitezke.

- Lauretan hogei?
- Lauetan (h)ogoi, urté.
- Eta duela lau urte-edo hila?
- Ba, eztakit láu urté ikáro dirén, e? eztakit láu úrte ikáro diren.
- Tira, guti-goitibeheiti...
- Betí, harrék e, hói, hóla erratén tzüin: *zéuzüik?* *zeúzüik?*
- Hark ere bai? eta ze izena zuen?
- Laborde; Laborde, Jean...
- Eta hura ere Behere-Kartierekoa?
- Bai, bai... Beré-Kartiérien sortüia zén ta hán... (h)án bizi izána betí... Hárrek èiten tzüin hán eta, pronòntziazten züin, ba, *zúik*<sup>9</sup>.

---oOo---

Handik denbora pixka batera, 1995eko udan zehazki, lehenxeagoko urte-etan Yrizarrentzako inkestaren erantzule Jean Kopentipik emaniko lekukotasuna gogoan izanik, Behere-Kartierera jo nuen, auzo honetan lehenagotik egonik banintzen ere, oraingo aldian Pierre Oihenart Durritxaga jauna<sup>10</sup> eza-gutzeko zoria izan nuela.

Eskuartean dudan gaia dela-eta galdekatu egin nuen noski, hark, behin berriro, *duzüik* gisako era eman zuela. Galdera, baina, era ximplean egin nuenez -hau da, adizkiak, erlatibo-esaldi baten barruan txertatuz gero, menturaz sorraraz zezakeen balizko *\*duzüiken* bat-edo kontuan hartu gabe-, handik lau urtetara, 1999an hain zuzen, beste ikustaldi bat egitera joan nintzaion. Hona xede horrekin nik prestatu galderei hark emaniko erantzunak:

---

<sup>9</sup> 'duzüik' esan nahi izan zuen, itxura osoan.

<sup>10</sup> Pierre 1925-11-01ean sortua da aipatu kartiereko Jelosia auzo txikiko *Prostaenia* etxean, gurasoak ere, biak, auzo horretakoak zirela: aita etxe berekoa eta ama *Portüia* etxekoa.

1 - erlatiborik gabeko galderak	erantzunak
vous avez acheté une maison ( id. id. id.) vous avez acheté beaucoup de maisons vous avez acheté toutes les maisons	züik eòsi duzúik etxéa züik e ètxe bát eòsi duzúik etxé ánitx eòsi duzúik (singularrean emana) züik ètxe guziák eòsi ditutzüik <sup>11</sup>
2 - erlatiboa erabili beharrekoak	erantzunak
le cheval que vous <sup>12</sup> avez emmené est joli ( id. id. id.) le pain que vous avez mangé était bon toutes les maisons que vous avez achetées sont jolies tous les pains que vous avez mangés étaient bons  ( id. id. id.) le chien que vous avez emmené est blanc tous les chiens que vous avez emmenés sont jolis	zaldía ekàrri duzuná pullíta da züik ekàrri duzúin zaldía pullíta da ogía jan duzúiná oná zen ètxe guziák eròsi tutzúinák pullítá tia ògi guziá jan duzúiná oná zen (singularrean emana) jan tutzúin ògi guziák onák tzien züik ekàrri duzúin (t)zakurrá xuría da zàkur guziák ekàrri tutzúinák pullítá tia

Erantzunak ikusi ondoren garbi geratu zen zorioneko *duzúik* hori –plurallean *tu(t)zúik*– bakarka doalarik erabiltzen dela soilki, erlatiboko esaldi bat gauzatzeko erabili ohi den *-(e)n* menderagailua gaineratzean, *duzúii* arrunt bati –plurallean *tu(t)zúii* bati, beraz– atxiki behar zaiola.

Horretaz landara, eta sintaxiari behatuz oraingoan, zenbait erantzunek, ekialdeko mintzamolde batzuetan bereziki (R, BN-s...) inoiz agertzen den *gizon xin dena...* moduko esaldian azaleratzen den egiturarekin zerikusia dutela ikusirik –nahiz erantzunotako izenak edo, bere kasuan, izenordeak mugaturik ageri diren– Pierre jaunari zenbait galdera egin nion:

- Batzuetan erraten duzu ‘ekarri duzúin zakurra...’ eta beste batzuetan ‘zakurra ekarri duzúina...’; berdin dea?
- *Ekarrí... duzúin zakurrá?* eo... eta gëó?
- Edo, bestela, ‘zakurra ekarri duzúina...’
- *Ekàrri duzúin zakúrra* polít e... pöllitá baino, *ekàrri zúin, ekàrri duzúin tzákurra*.

<sup>11</sup> Objektu pluralarekin erabili ohi den ‘tutzüik’ adizkiaren laburbildu gabeko era dugu *ditutzüik* hau, bistan denez.

<sup>12</sup> ‘Vous’, esaldi iragankor honetan, ‘zuk’ eta ‘zuek’, biak izan daitezkeenez, eta Pierrek bietako lehenarekiko gogoeta egin zuenez, errepikatu egin nion galdera ‘zuek’ izenordea erabil zezala eskatuz.

- Hobeki, ezta? ‘zakurra ekarri duzüina’ ez da hain polita, ezta?
- Eeee? *tzakurrá, ekárri duzüiná* eztá háin pullita.
- Baina erraten da hori ere?
- Baá, *zákurra... ekárri duzüín, ekárri uzüín tzakurrá* pollíta dà; *kárri duzüín zakurrá* pullíta dà.
- Eta ‘zakur ekarri duzüina’?
- *Zákur e... ekárri duzüiná?* pullíta dá.
- Nola dago hobeki? ‘zakurra ekarri duzüina...’ edo ‘ekarri duzüin zakurra...’?
- Ah, éztakit; *ekárri dizüín* (sic) *zakúrre*, pulíta da; è’ba ahál hastétik emán oi?
- Bai, eman duzu baina zenbait aldiz ‘zakur ekarri duzüina...’ eman duzu; honela ere erraten ahal da?
- E... bai, bai...
- Erraten ahal da...
- Bai.
- Baina, bestea da politagoa?
- Bai, bai, oi é erràten ahal dá; errátea... *ekárri duzüín zakurrá* pöllíta da bertzeláz, e... haástetik behar dá erraná, *ekárri duzüiná*, ta geó (e)re, bertzelá erràten ahál da nor dén eo, *tzakurrá...*
- ... Ekarri duzüina.
- *Ekárri duzüik, oui.*

Adizkera bitxi honen egundainoko iraupenaz zein testuinguruaren araberrako erabileraz lekukotasuna emateaz landa, Pierre Oihenart jaunarekin egoniko denboran berak, iragangaitzean, *izan* eta *ukan* adizkiei ematen zien berdintasun-tratueraz ohartu nintzen. *Ukan* honek, honela, *izan* aditzaren sinonimo gisa duen balioaren berri Yrizarrek ematen du lehen aipatu *Morfología...*-n<sup>13</sup>, 1974an Louis Dassance zenarengandik errezibituriko datu batzuk aditzera ematean –zeinetan, bestalde, lehen aipatu balizko *duzüik* era-

<sup>13</sup> Zehazki ‘Subvariedad de Villefranque’ri eskaini ‘Fuentes’ atalean (369 or.).



rekiko azkoitiarrak egin galderari ezezkoa ematen zaion-; hona Yrizarrek *Morfología...*-n eman datuotatik lan honetarako aukeratu ditudan zatiak:

**Villefrange / Milafranga** (1974) - LOUIS DASSANCE y l'ABBÉ ETCHEVERRY (designados por DE). *Comunicaciones personales* - Me decía Dassance, en su carta del 23 de enero de 1974: (...) - Decía también: "Milafrangan askotan aditzen da: 'Baionan *ukhan* niz' (j'ai été à Bayonne), guk aldiz, 'Baionan *izan* niz', eta abar" - En su carta de 11 de febrero de 1974, escribía: "Huna, Etcheverry jaun apezaren laguntzarekin, Itsasuko eta Milafrangako galdeketak (...)" - Agregaba, respecto a mi consulta sobre el empleo, en el barrio de Argintz-Karrika, de la forma *duzüik* (flexión II-13-c), registrada por Bonaparte: "Etcheverry apeza ez da orhoit *duzüik* aditurik, bainan bai *duzüi*" - En aquella ocasión, Dassance me envió todas las contestaciones correspondientes a las flexiones de mi "Cuestionario" de formas verbales [*Contribución a la Dialectología de la lengua vasca*, t. I, pp. 296-303], que había obtenido con la colaboración del sacerdote Etcheverry - Como digo en "Fuentes" de Ustaritz, Dassance falleció algún tiempo después, sin haber podido llegar a ver la publicación de los datos que me había proporcionado.

Hori horrela, *izan* = *ukan* honi buruz ere Pierre jauna galdekatzen hasi nintzen, honako elkarriketa laburra izan genuela:

- Errazu-eta, lagun bati galde egiteko ea hemen egon denez, kasu, nola erran behar zaio? 'noiz...'
- *Nóiz eón tziá hémen.*
- 'Noiz egon zira' edo 'noiz ukan zira'?
- Ah, *nóiz ukan tziá* e... ça veut dire... kásik e vous êtes venus, mais... nóla erran duzú gëó?
- Bai, 'noiz izan zinen hemen?', 'noiz ukan zinen?' edo 'noiz egon zinen?', nola erraten du jendeak hemen?
- *Nóiz e... nóiz ukan tzinén...* nàhi dú, *nóiz ukan tziá?* *nòiz ukan tziá?* e... *nóiz ukan tzínen?*
- Hemen horrela, ezta?
- Ba, eta gío...
- 'Noiz izan zinen?'
- *Noiz, nóiz itzan tzínen émen;* e...
- Gauza bera da?
- Baá... bai.

- Hau da, galde egiteko ea noiz izan nintzen hemen, etxe honetan, nola behar dautazu erran? ‘noiz egon zinen?’ edo ‘noiz...’
- *Nóiz izan tzinén émen... nóiz izan tzinén émen.*
- Eta ‘noiz ukan zinen hemen?’
- [errepikatuz:] *Nóiz ukan tzinén hémen? nóiz eo... nóiz izan tziné emé(n), eta... hóla; nóiz itzán tzinén emé(n).*
- Eta ‘noiz ukan zinen’, ez?
- *Nòiz ukan tzinén emén? baá, oi é...*
- Bai? berdín? bata eta bestea?
- Baá, bá-ba-ba-ba, ta *noiz ukan tzinén emén*, ta *nóiz intzàn* (sic) *tzinén émen*; ba... berdín dia oik.
- Eta ‘egon’ ez? ‘noiz egon zinen’ ez?
- *Nóiz egón tzinén emén? eee... nóiz egón (t)zinén emén? eee...*
- Ez da erraten hemen? hemen ez da erraten hola?
- *Nóiz, egún tzínen émen? baa!... nóiz égon tzínen émen, nóiz eón-tzínén emen.* [biziki markatuz]
- Bai? erraten ahal da hori ere?
- Zúk e, *nóiz eón tzinén emén?* eta zúk, erràteúzu *nóiz egón tzinén émen*, ta *nóiz eon tzínen émen.*
- Hori ere erraten da...
- Baá, ba, holá da, bai...
- Orduan hiru gisetara; erraten ahal da ‘noiz egon zinen hemen’, ‘noiz izan zinen hemen’ eta ‘noiz ukan zinen hemen’...
- *Nóiz ukán tzinén emén*, eta *nóiz egón tzinén emén*, (...) eta bertzía nóla zén?
- Eta ‘noiz izan zinen hemen?’
- *Nóiz izan tziné emé?...*
- ‘Egon zinen’, ‘izan zinen’ eta ‘ukan zinen’, hiru gisetara erraten ahal da?
- E... *nóiz izan tziné (h)emén? nóiz egon tzinén émen?* eta giò bertzía, nóla zén?
- ‘Noiz izan zinen’ eta ‘noiz ukan zinen’?

– Nòiz *ukán?* *ukán tzíne*<sup>14</sup>... berdín día!

– Berdín dira, e? hirurak?

– Ba... eztía berdín éz, zère(n)-ta hemé(n) e... (zuzenduz:) berdín da.

Hots, berriemailea solasaldiaren amaieran zertxobait nahasi bazen ere une laburto batean kontraesanean erortzeraino –hainbeste erkaketarekin ez da harritzekoa halakorik gertatzea–, galdeketan aipatzen diren hiru moldeak berdintzat jo zituen.

Handik minutu batzuetara, gainera –egonaldi berean beraz– eta Jean Kopentipi herikidearen haurrideez mintzatzen ari ginela, *ukan* horixe, iragan-gaitzean, berez eman zuen nire jarraiko galderari hark erantzuna ematean, zalantzarako tarterik tikiena ere ez utziz. Hona galdera-erantzunak:

– Eta apeza –Jean Kopentipiren anaietarik bat– zein herritan zen?

– Zéee? anéia? (h)oiéna? ba, haástean *ukan tzén* Baionán, *géó ùkan tzén*-eta *Mòncayól*<sup>15</sup>, *mendián*, *arrónt eón*, *eón* eta *géó*, *èman tzúín*-eta, *Sáint-Martín-Arbéru oro*<sup>16</sup>... *hórrat*, (h)*eméndi*'rat, (h)*eméndi*'at, eta *hán híla da*; han atzéman *tzutén híla ohé*... *ohétik jáustean*.

Eta nire eskuko oharretan, azkenik, zera dakusat berriemaile honixe bildurik ere: *égun eníz ukána* (izana) = 'ez naiz izan / ez naiz egon'.

## BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R. M. de: *Diccionario vasco-español-francés* (repr. facsímil). Edit. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.

BONAPARTE, L.-L.: *Le verbe basque en tableaux*. Londres, 1869.

YRIZAR, P. de: *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Euskaltzaindia, 1999.

<sup>14</sup> *ukán tzeíre* aditzen ote den nago.

<sup>15</sup> Moncayolle da hori, euskaraz Mithikile, jarraian agertuko den Saint-Martin d'Arberoue, euskaraz ere, Donamartiri den bezala.

<sup>16</sup> 'Edo' da hori, nire ustez, erraz ikus daitekeen garapen baten ondorioz.